

Gazteria:

- Gazteriaren plana osatzea, zeinak biztanleriaren sektore honekin datozen urteetan landu beharreko estrategia zehaztuko duen.
- Gazteentzako lokalen egokiera eta jarduera eskaintza hobetzea kontzejuekin batera.
- Gazteria aktibatzea helburu duten ekinbideak (monitore eta premonitoreen prestatzea, lokalen autogestioa, udaleko bizitzan parte hartzea...)

Kirola:

- Kirol azpiegitura hobetzea eskolei eskaintza handituz eta klubekin hitzarmenak lortuz.
- Zendeako kirol azpiegituren hobetzea (Artikako kirolanitz zelaia, Berriobeitiko zelaia estaltzea, Artikako piszinetan igerileku berria, berriobeitiko piszinen hobekuntza eta Berriogoiti eta Aizoainen kirolerako zonalde berriak)
- Biztanleria helduari zuzenduriko kirol jardueren eskaintza handitzea eta kontzeju ezberdinetara zabaltzea.
- Kontzejuen arteko aisialdi-kirol jarduerak eta ekitaldiak antolatzea.

Kultura:

- Zendearen kultur baliabideak hobetzea (liburutegia Artikaberrira eraman, elkarateentzako lokal berria Artikaberrin eta Berriogoitiko jauregia egokitu eta martxan jartzea.
- Zendeako herri kultura jaso eta zabaltzea, era berean kultur aniztasuna ere zabalduz.
- Zendeako talde kulturalak lagundu eta promozionatzea, udalaren eta elkartearen elkarlaneko jarduerak burutzen diren bidenabar.

Hezkuntza:

- Haur eskolen kudeaketa zuzena aztertu eta haien baliabideak handitu zerbitzuaren kalitatea hobetze aldera.
- Kalitatezko eskola publikoaren aldeko elkarteak lagundu eta haiekin elkarlana burutu.
- Udalak erreferentziazko eskolen zuzendaritzan parte hartzea.
- Liburutegia lekualdatuz artikako kultur etxearen eraikina musika eskolarako egokitu.

Hirigintza:

- Etxebizitzaren hazkuntza pausatu eta jasangarria aurreikusi eta bereziki alokerako etxebizitza babestuan eragin.
- hiri altzarien hobekuntza eta mantenuaren egindako lana indartu.
- Bidegorri eta oinezkoentzako bideen sarea sortu, bereziki eskola bideetan eraginez.
- Zoru ez urbanoa babestu eta industri zorua antolatu.

Alor sozialak:

- Berdintasun saila sortzea eta honen kudeaketarako langile teknikoak kontratatu.
- Errentaren araberako tasak ezarri baliabide gutxieneko biztanleriak udal zerbitzuetara

hel daitezen.

- Udalak dituen baliabideak pobrezia mailaren azpitik inor bizi ez dadin erabili.
- Berriobeiti-Berriogoitin eta Artikan helduentzako guneak sortzea.

Partehartzea, komunikazioa eta kontzejuak:

- Herrietan burutu diren urteroko solasaldiak eginez jarraitu hiritarren eta udalaren arteko komunikazio zuzena ahalbideratzeko.
- Hiritarren eta elkarten partehartzea bultzatu erabakitze prozesuetan partehartze sail berezitu bat sortuz.
- Udalaren administrazio digital eta komunikazio bide digitalak ezartzen bukatzea hiritarrek bete beharreko tramiteak errazteko asmoz.
- Kontzejuen eta udalaren arteko koordinazioa eta elkarlana hobetzea hitzarmen orokor eta berezituen bidez.

Ingurugiroa:

- Udal zerbitzu eta eraikinetan kontsumitzen den energiaren aurrezpenean eta efizientziaren hobekuntzan lanean jarraitzea, autokontsumoa bultzatuz.
- Konpostaia eta beste hondakinen tokiko kudeaketan eta hauen bultzatzean lanean jarraitzea.
- Artikako usain gozoen parkearen berrikuntza bukatzea eta elkarteekiko elkarlan filosofia horretan ("El Mogote" eta "Tierra viva-Lur bizi" esaterako) jarraitzea, beste herrietara ere eramanez.
- Kontzejuen eta herritarren arteko elkarlanean sakontzea baso eta ingurugiro kudeaketan hobetzeko.

Euskara:

- Hiritarren hizkuntza eskubideak betetzen direla ziurtatu udalarekiko harremanetan.
- Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatu.
- Zendeako toponimiaren zabalpena.
- BES elkartearekin elkarlana handitu.

Zerbitzu zentralak:

- Zerbitzu eta instalazioen (igerilekuak, eskola publikoak, lorezaintza...) kudeaketa publikoa aztertzea.
- Udaltzaingoaren zerbitzua martxan jartzea udaltzain propioekin ala ondoko herriekin hitzarmena eginez.
- Hiritarrei arreta zerbitzu gunea sortzea Artikan.
- Udalaren oreka ekonomikoa mantentzea zorduntze berriak ekidin eta udalaren funtzionamenduan efizientzia hobetuz.